

Ordiziako Udala

Ordizian, **2018ko urtarrilaren 25ean**, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO OBILKURA, ohiko deialdian, honako hauek bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesús Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea


KONTUHARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jauna

EGUNEKO GAI-ORDENA

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2017ko abenduaren 21eko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- Abenduko Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3.- Kontu-hartzaileak urtarrileko kontratuei dagokien ingeren berri ematea.
- 4.- EH-Bilduren mozioa, OIANGUren egoerari buzukoa
- 5.- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikoa zabaltzeko proposamena.
- 6.- Kreditu gaikuntza aparkaleku bat egiteko proiektuaren erredakziorako.
- 7.- Kreditu gehikuntza aldaketa 46.558,34 euroko kopuruarekin.
- 8.- Kreditu gehikuntza aldaketa 61.506,74 euroko kopuruarekin.
- 9.- Kreditu aldaketa orga jasotzailea erosteko.
- 10.- Aldaketa puntualeko espedientea, Arau Subsidiarioetako "Txindoki" 15HIEko 15.6EUari dagokiona.



Ordiziako Udala

GALDE-ESKAERETAN AZTERTUTAKO GAIAK


- 1.- HAPOn AURRERAKINAREN parte-hartze prozesua
- 2.- Udal langileen soldataren igoera
- 3.- Herri inkesta
- 4.- ORDIZIAHITzen Jarraipenerako Batzorde Paritarioa
- 5.- Langileek dagokien hizkuntza-eskakizuna betetzea eta Euskara Teknikariaren funtzioak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19:00etan

AMAIERA ORDUA: 21:35ean





Ordiziako Udala

Lehendakariak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez.

1.- 2017ko abenduaren 21eko ohiko bilkurako akta onartzea

Proposamena

2017ko abenduaren 21ean egin zen ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

- Aldeko botoak: 13 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioa: 0

Hortaz, Lehendakari jaunak akta aho batez onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du.

2.- Abenduko Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu : duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Sukia andreak

B17/1053 dekretuaren inguruko informazioa eskatu du. Nabarmendu du, establezimenduei ordutegia luzatzeko baimena ematerakoan, beste behin ere, ez direla bizilagunen eskubideak aintzat hartu.

Uste du galdetu beharko litzaiekela.


Alkate jaunak

Erantzuten dio baimendutako ordutegiaren luzapena araudiak ezartzen dituen mugen barruan dagoela eta ediktua argitaratu dela.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Alkate jaunak gai zerrendako hirugarren puntuaren berri eman du.




Ordiziako Udala

3.- Kontu-hartzaileak urtarrileko kontratuei dagokien ingeren berri ematea.

KONTU-HARTZAILEAREN INGEREN TXOSTENA (01/2018)

Idazkaritza sailetik honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote Kontu-hartzaileari:

Sozietatearen izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Betearazte epea	Luzapenak	Kontratuaren prezioa	2016an gastuta
Gesmunpal	Nahitaezko diru-bilketa	03/11/2003	03/11/2007	---	Aldakorra	30.943,58
J.M. Garmendia Amundarain	Kultur Etxeko atezaina	15/04/1986	Mugagabea	Urtez urteko luzapena	Zenbatekoa 2016an: hileroko 2.948,84 + BEZ	42.817,20
Landarri S.L.	Hilerriko zerbitzua	10/03/2005	10 urte 2015/03/10	Dekretu bidezko luzapena esleipen berria egin arte Epemuga: 2016/03/12	Gehieneko prezioa 18.000 euro + BEZ	21.937,30
Eulen Sociosanitarios	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	24/12/2010	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Tarifen arabera	140.409,78
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden adingabeko eta gazteekin eremu irekian Gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen zerbitzu publikoa	27/04/2012	Gehienez 4 urte 27/04/2016	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Kontratuaren prezioa 60.000 euro BEZ barne Prezioa 2016an: 65.529 euro BEZ barne	63.806,72
Erro Koop. Elkartea Leire Andia	D'elikatuz zentroaren kudeaketa	24/07/2012	Gehienez 4 urte 27/04/2016		Kontratuaren prezioa 90.000 euro BEZ barne	102.755,36
INDOK	Munigexen kudeaketa	Kontratu gabe	Urtekoa		Prezioa 2016an: 12.196,80 euro BEZ	11.243,96



Ordiziako Udala

					barne	
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Kontratu gabe	Kontratuaren prezioa 17.061 euro BEZ barne	24.407,28
EULEN	Udal eraikinen eta hiri altzarien garbiketa	Behin-behineko kontratazioa 2013/10/10	Mugagabea kontratazio berria egin arte		18,07 euro ordua + BEZ	163.343,53
Ainara Ormaetxea Harto	Immigrazio Zerbitzua	01/01/2016			21.773,95 euro BEZ barne	21.966,02
Alotza Haurtzaindegia Guraso Elkartea	Udal Haur-eskolaren kudeaketa zerbitzua.	01/09/2009	Gehienez 6 urte 2009/09/01		Kontratua ikusi Tarifik+su b+Udal zerbitzu kontratua 33.500 eurokoa	388.104,44

Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak.**

23. artikulua. Kontratuen iraupen epea

1. Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu behar dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.


BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA Toki erakundeetarako kontratazio-arau bereziak

1. Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

26. Artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:

k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.



Ordiziako Udala

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretizkoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea

c) Ordainketaren kontuhartze materiala. Udaltzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako amankomunatu erantsiko zaie.

Artikulua “70: Ingerak.”

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.


3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapidetza alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bategina:



Ordiziako Udala

213. artikulua. Barneko kontrola.

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

218. artikulua. “Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak”

1. 1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe. Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gaitzerrendan. Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran

2. 2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.


3. 3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hilabete honetan irregulartasun egoeran dauden kontratu hauen fakturak heldu dira:

INGERAK: FAKTURAK

**2018
URTARRILA**

HORNITZAILEA	FAKTURA ZENB.	ZENBATEKOA
J.M. GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/01	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	14	38000
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	15	38000
LORRATZ ELKARTEA	389	5460,75
LORRATZ ELKARTEA	431	5460,75
LAIA, S.COOP.	17/43	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	014U.17	7640,25
ERRO KOOP. ELKARTEA	001U/18	7640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	83	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2017/405	4.268,58
GESMUNPAL, S.A.	2017/12	542,13
GESMUNPAL, S.A.	2017/426	4.165,76
GESMUNPAL, S.A.	2017/13	928,08
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3502175	4.861,39



Ordiziako Udala

ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	86	141,57
LANDARRI, S.L.U.	1700572	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1700676	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1700672	80,80
LANDARRI, S.L.U.	1700708	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1700707	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1700719	1108,20
	GUZTIRA	126.550,29

ONDORIOAK:

- a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.
- b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Miguel Zubizarreta Elicegui

Ordiziako Kontu-hartzailea

2018/0041. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSIRIK:

- Kontu-hartzailearen 01/2018 txostena, 2018ko urtarrilaren 22koa, kontratuak indarrean ez dituzten zerbitzuei dagozkien hainbat fakturarekiko eragozpena ezartzen duena.
- Kontuan izanik zerrendan ageri diren fakturak epea gainditu izanaren ondorioz, eta bere kasuan, esleipenean jasotako luzapenak ere gainditu izanaren ondorioz indarraldia galdua duten zerbitzu-kontratuei dagozkiela.
- Kontuan izanik esku artean dugun lan-kargak ezinezkoa egiten digula eguneratuta egotea kontratazioari dagokionez, araudiak ugaritzeak, administrazio elektronikoa ezartzeak eta administraziook gardentasun-printzipioekin jokatu beharra dugula, horrek guztiak espedienteak zorrotasun handiagoz bideratzea eskatzen digu, eta horrez gain, makina bat konturi buruzko informazioa eman behar izatea beste administrazioei eta erakundeei.
- Horiek guztiak gorabehera, ahalegina egiten ari gara aipatu kontratu horiek eguneratzeko eta erregularizatzeko. Plangintza-bilerak egiten ari gara kaltetutako teknikarien artean dagozkien baldintza-orriak lantzeko 6 hileko epean egoera eguneratze aldera.
- Plangintza hori dagoeneko ematen hasia da lehen emaitzak.
- Nolanahi ere, eta zerbitzu horietako asko ezinbestekotzat edo beharrezkotzat jotzen direlako ematen ari direla kontuan izanik, ezinbestekoa da zerbitzu horien kostua ordaintzea.


Horregatik guztiagatik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea, kontratuak egunean jartzeko konpromiso irmoa hartzea, eta lan hori gobernu-taldearen lehentasun gisa ezartzea.

INGERA: FAKTURAK

URTARRILA



Ordiziako Udala

HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J.M. GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/01	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	14	38.000,00
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	15	38.000,00
LORRATZ ELKARTEA	389	5.460,75
LORRATZ ELKARTEA	431	5.460,75
LAIA, S.COOP	17/43	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	014U.17	7.640,25
ERRO KOOP. ELKARTEA	001U/18	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	83	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2017/405	4.268,58
GESMUNPAL, S.A.	2017/12	542,13
GESMUNPAL, S.A.	2017/426	4.165,76
GESMUNPAL, S.A.	2017/13	928,08
EULEN SERV.SOCIOSAN. S.A.	3502175	4.861,39
ORDIZIA GARBIKETAK S.L.	86	141,57
LANDARRI, S.L.U.	1700572	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1700676	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1700672	80,80
LANDARRI, S.L.U.	1700708	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1700707	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1700719	1.108,20
GUZTIRA		126.550,29

- Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

ALKATEA. Ordizian, 2018ko urtarrilaren 22an

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu : duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Esan du Kontu-hartzaileak Osoko Bilkurari hilero ematen diola erregularizazio egoeran ez dauden kontratuen ordainketen berri.

Jakinarazi du, ahal den neurrian, lanean ari direla kontratuak erregularizatzeko.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.




Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

4.- EH-Bilduren mozioa, OIANGUren egoerari buzukoa

Proposamena

OIANGUREN EGOERA



Ordiziako Udala

ZIOA

Oiangu parkearen biziberritze planaren barnean bi bide irekita ditu egun Ordiziako Udalak. Batetik, urtetan Aranzadi Elkartearekin parkearen biziberritze naturalaren lanetarako akordioa eta bestetik, baserria berreskuratzeko egin zen proiektua eta esleipena.

2014ko maiatzean abiatu zen, praktikoki, Oianguko baserria berreskuratzeko prozesua. Basque Culinary Centerrekin hitzartu eta 2015eko martxoan publiko egin zen proiektuak hezkuntza, formazioa, elikadura, gastronomia eta jasangarritasuna zituen, eta oraindik ditu, ardatz.

2015ko maiatzean jatetxea martxan jarri zenetik, herritar eta enpresen topaleku da eta bidean proiektu berriak abian jartzeko haziak ere ez ezik, argia ikusi dute, edo garatzen ari dira.

2017ko ekainean, Basque Culinary Centerrek hasierako hitzarmena amaitutzat ematea erabaki zuenetik, jatetxearen esleipena ez da eguneratu eta ez da inongo gogoetarik abiatu Udaletik, ekainean bertan hala eskatu bazen ere.

Honez gain, enplegu planaren baitan, urtero uda garaian 6 hilabeteko kontratazio bat egin izan da parkearen mantentze lanetarako.

Azken elurteak medio, parkearen egoera kezkagarria da eta Udalaren ardura izanik, bada garaia, Oianguko egoeraren inguruan aurrera begirako urratsak emateko.

ESKAERA

Horregatik guztiagatik, ERABAKI hauek hartzeko eskatzen diogu Ordiziako Udalari:

- 1.- Aranzadirekin parkearen egoeraren inguruko azterketa bat egitea eta beharrezkoak diren urratsak, ahal bezain azkarren egitea.**
- 2.- Basque Culinary jatetxearen kudeaketaz at geratu zenetik, jatetxearen esleipena irregulartasun egoeran dago eta honenbestez, Oianguko baserriko jatetxearen esleipena ahal bezain azkar eguneratzea.**
- 3.- Parkearen inguruan batzorde bat irekitzea, non parkearen biziberritzeaz zein baserriaren kudeaketaz arduratzen direnez gain, alderdi politikoetako kideak ere egongo diren.**

Eztabaida


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Eguren jaunak

Mozioren zergatia azaldu du eta gaineratu du mozioren eskaerak bi puntu biltzen dituela:

- 1) 1.- Aranzadirekin parkearen egoeraren inguruko azterketa bat egitea eta beharrezkoak diren urratsak, ahal bezain azkar egitea.
- 2) Oiangu Baserriko jatetxearen ustiapena egiteko, bere garaian, BASQUE CULINARY CENTERekin sinatutako hitzarmenaren irregulartasun egoeran eragitea

Alkate jaunak



Ordiziako Udala

Esan du Basque Culinary Center-en inplikazioa eta konpromisoa ez dela izan espero zena eta Tokiko Gobernu Batzordeari horren berri behin baino gehiagotan eman diola. Horri konponbide bat eman behar zaiola uste du bera ere.

Aranburu jaunak

Erantzun du ARANZADIREkin elkarlanean ari direla eta bere aholkularitzarekin kontaktzen dutela alde batetik, parkearen balioa handitu eta hobetuko duten konponbideak bilatzeko eta bestetik, baserriko jatetxearen kudeaketarako. Horien artean, parkearen zati bat baso bihurtzea, baita ikasleentzako Natur Eskola bat sortzea ere.

Esan du egiteke dituen bere zereginen zerrendan daukala eta badakiela gaiari heldu behar zaiola.

Aste honetan jatetxea kudeatzen ari diren pertsonekin bildu da.

Otsailean, alderdi politiko guztiekin biltzeko asmoa dauka. Bere ideia alderdi guztiekin, momentu honetan jatetxea kudeatzen dutenekin, herriko elkarteekin eta orokorrean, herritarrekin lanerako Batzorde bat sortzea.

Sukia andreak

Esan du proposamenaren alde bozkatuko duela. Uste du gaiari seriotasunez heldu behar zaiola.

Uste du ideia, hasiera batean, ona zela, baina Basque Culinary Center-ek egindako hitzarmenaren aldebakarreko suntsipenari dagokionez, ez dela behar bezalako jarraipenik egin.

Dubreuil jaunak

Esan du hasieran egitasmoa ona zela, baina porrot egin duela. Uste du entitateari dagoeneko egin den aldebakarreko ukapena idatziz eskatu behar zaiola.

Esan du ahalik eta azkarren egoera eta hitzarmena legeztatzeko, ez dagoela beste modurik lizitazio berri bat egitea baino.

Halaber, Aranburu jaunaren iritziaren kontra, uste du momentu honetan jatetxea kudeatzen dutenek ez dutela aipatutako lanerako batzordean egon behar. Uste du ona dela Aranzadi aholkularitza entitate bezala egotea.

Azkenik, Eguren jaunari eskatzen dio azaltzea zer esan nahi duen egoera, eta ahalik eta azkarren ustiapena, legeztatu behar direla esaten duenean.

Eguren jauna


Moziok eragin duen eztabaidaz pozten da.

Dubreuil jaunari erantzuten dio ustiapenari dagokionez, berak hiru proposamen aurkeztu zituela.

“arduradunez” hitz egiten duenean, Udaletxeko arduradunei buruz ari dela, dagoena dagoela.

Ez du uste parte-hartze prozesu bat egin behar denik.

BCC-k, aldebakarreko erabakiaz, hitzarmenaren suntsipena egin zuenean hauek izan ziren aurkeztu zituen proposamenak:



Ordiziako Udala

- 1) Entitatea jarraitzera behartzea
- 2) Egitasmoaren izaera mantentzea entitatea horren partaide eginez.
- 3) Aurreko aukeretako bat ere posible izango ez balitz, entitatearekin hasi ziren ikasleek egitasmoarekin bat etor zitezkeen hainbat ideia zituzten.

Ez du uste egitasmoak porrot egin duenik, baizik eta alde bietako batek ez duela hitzartutakoa bete, baina egitasmoak hilda zegoen parke bati balioa eman diola uste du. Uste du porrota BCC-ri erantzukizunik ez eskatzea izan dela.

Azkenik, esan du gaur egun hitzarmena irregularra dela eta lizitazio berri bat egin behar dela, Udaletxeak baserrirako dituen ideiak aurretik zehaztuz.

Dubreuil jaunak

Uste du egitasmoak zeukan balioa formaziorako helburua zela.

Eguren jaunak

Erantzuten dio formazioa helburu izango duen egitasmo bati berriro heltzea eta definitzea gure esku dagoela.

Soto andreak

esan du, sortu den eztabaida ikusita, lizitazio berriari dagokionez Udaletxeak oraindik ez duela ezer egin, baina pertsona batzuek esan diotela interesdun bezala aurkeztu direla.

Aranburu jaunak eta Sukia andreak

Erantzuten diote agian interpretazio akats bat dela. Seguruenik interesa duten pertsonak badaudela, baina oraindik ez dela ezer egin.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

- Aldeko botoak: 13 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.




Alkate jaunak gai zerrendako bosgarren puntuaren berri eman du.

5.- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikoa zabaltzeko proposamena.

Proposamena

Ordiziako Gizarte Zerbitzuen Departamentuak bere garaian alderdi politiko guztiei jakinarazi zien oso kontuan izan behar dugula Gizarte Zerbitzuei buruzko euskal legeak herri-administrazioei eta, bistan denez, gure udalari ondorengo agindua ematen diela: **sustatzea eta bermatzea prestazio eta**



Ordiziako Udala

zerbitzu berberak eskuratu ahal izango direla, eskubide subjektibo gisa (auztegieta galdagarria), 2016ko abenduaren 25etik aurrera.

Hortaz, Ordiziako Udalak agindu hori bete beharra dauka, Gizarte Zerbitzuen Udal Sistema arautuz eta antolatuz, eta gure udalerrian erantzukizun publikoko sistema unibertsala hedatu beharra dauka, Ordizian arrisku- edo mendekotasun-, desgaitasun-, eskusio- edota babesgabetasun-egoeran dauden pertsona guztiei laguntza emate aldera. Ordiziako herritar guztien gizarteratzea autonomiaz sustatzea dagokigu, eta bestelako sistemekin eta esparruekin koordinaturik (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, eta abar), inklusioa eta gizarte-ongizatea sustatzea gure udalerrian.

Horixe izan da Gizarte Zerbitzuen I. Udal Plan Estrategikoan 2016. eta 2017. urteetan garatu dugun plangintza-lanaren helburua eta horizontea.

Horrek guztiak epe motz eta ertainera sistema orokortzeko aurrera egiten eta "sistemako prestazio- eta zerbitzu-zorroa gure udalerrian" ezartzen laguntzen digun dokumentua ekarri digu.

Plangintza-lan hori honela burutu da: a) Alderdi politikoen, gizarte-ehunaren, arlo horretan lan egiten duten profesionalen, eta erabiltzaileen eta familien ekarpenekin, ikuspegi guztiak aintzat hartuko dituen udal-sistema partekatu baterantz aurrera egite aldera; eta, jakina, b) legeak jasotzen dituen eskumen-araubidearekiko eta egiturarekiko errespetutik abiatuta.

Udalak, bere eskumenen barruan, kalitateko gizarte-zerbitzuak bermatu behar dizkie ordiziar guztiei. Lehenik pertsona, ororen gainetik. Gure iritziz, Gizarte Zerbitzuen inguruko plangintza horrek dokumentuan jasotzen diren helburu guztiak lortzeko konpromisoa erakutsi behar du, aurrez udala osatzen duten indar politikoen arteko hausnarketarako eta akordiorako aldia zabaldua.

Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren iritziz, Ordiziako Gizarte Zerbitzuen I. Udal Plan Estrategikoak legeak betearazten dituen konpromisoei erantzuten die, eta konpromiso horiek guztiak jasotzen eta garatzen ditu. Halaber, SIISk aurkeztu digun agiriak gizarte-zerbitzuen arloan ekimen politikoa bultzatu eta karakterizatu behar duten gidalerroak jasotzen ditu. Agiri horrek oinarri egokia ezartzen du "*gure udalerrian gizarte-zerbitzuen legea betetzen joateko, zerbitzu-zorroa osorik garatuz, eta horrela, legeak agindutakoa betetzeko eta sistemak gure udalerrian duen eraginkortasuna indartzeko*".

Prozesuaren garapenean, momentu guztietan, alderdi guztiak tartean sartzen saiatu gara. Horiei, gure hausnarketak, iritzia eta proposamenak helarazi dizkiegu. Hausnarketa horiek, atxikitako agirian jaso ditugu berriro.

Halaber, gizarte-zerbitzuen departamentuak plan estrategikoa garatzeko egin duen proposamenaren berri eman diegu alderdi politikoei (plan estrategikoa ere atxiki dugu).


Bukatzeko, gure iritziz plan estrategikoa jasotzen duenaren arabera, eta departamentuak duen iritzia kontuan hartuta, udalak ahalegin handia egin beharko du, zalantzarik gabe, departamentuak zerbitzu-zorroa garatzeko behar duen giza baliabideez eta antolakuntzaz hornitzeko.

Horixe da, zalantzarik gabe, udalak hartu beharko duen lehen konpromisoa, edo, ez bairik gabe, hartu beharko duen lehen erabakia.

HORREGATIK GUZTIAGATIK,

Ordiziako Udalak erabaki du, eta konpromisoa hartu du, indarrean dagoen araudiko eta Gizarte Zerbitzuen I. Udal Plan Estrategikoko eskakizunei erantzungo dien gizarte-zerbitzuen udal-sistema berria diseinatzeko, horren inguruko plangintza egiteko eta sistema martxan jartzeko.

Eztabaida



Ordiziako Udala

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Proposamena zertan datzan azaldu du. Helburua kalitatezko gizarte-zerbitzuak sortzea da.

Dubreuil jaunak

Esan du proposamenak indartu egiten duela udal gizarte-zerbitzuekin dagoen konpromiso politikoa.

Plan Estrategikoa martxan jartzeko antolakuntzan egin beharreko aldaketez ere informatzen du.

Azterketa garrantzitsuak egin dira gizarte-zerbitzuen arloan eta proposamenarekin lortu nahi dena alderdi politikoen konpromisoa da.

Gizarte-zerbitzuen zorroan dagoen zerbitzu bakoitzak bere garapena izango du.

Sukia andreak

Esan du proposamenak bere babes osoa daukala eta agian, aztertu eta definitu beharko litzatekeena zabalpenaren kronograma dela.

Maiza andreak

Uste du, agian alderdi batzuk gehiago landu behar direla eta Planean parte-hartu duten pertsonen informazioarekin ere kontaktu behar dela.

Bere bozka, zalantza barik, proposamenaren aldekoa izango da, legezko betebeharrak ere badelako.

Maila ekonomikoan ere, esfortzua egin beharko da kalitatezko zerbitzuak izateko eta esfortzu horrek suposatzen duena ikusten joan beharko da oreka bat bilatzeko eta balantza beti alde berberera ez okertzeko.

Dubreuil jaunak

Uste du zaharren egoitzari egiten zaion ekarpena, orain KABIARA pasatuko denez, helburu horretarako erabili daitekeela.

Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

- Aldeko botoak: 13 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai zerrendako seigarren puntuaren berri eman du.



Ordiziako Udala

6.- Kreditu gaikuntza aparkaleku bat egiteko proiektuaren erredakziorako.

Proposamena

Beste behin, Ordizia hobetzeko aukera garrantzitsu baten aurrean gaude. Herritarrei eta bisitariari eskaintzeko azpiegitura berria eskaintzeko moduan. Aukerak ez dira beti izaten eta honakoa behin baztertu bagenuen ere, berriz jarri nahi dugu mahai gainean.

Ordiziak asko du eskaintzeko. Herri dinamikoa da, zerbitzuak ematen ditu eta jendea erakartzen du. Denetik du, ugari, Azoka, komertzioa, ostalaritza, jaiak, kirola, kultur ekintzat, hezkuntza mailako zerbitzuak... baina azpiegitura baten beharra dugu hauek denak osatzeko: aparkaleku bat erdigunean

Ez da gure iritzia soilik. Iaz egindako partaidetza prozesuetan –Aurrekontuena bat, eta Mugikortasunaren ingurukoa bestea- herritarrek ere luzatu digute horren beharra. Merkatari eta ostalariak ere horrela diote. Erdigunea itxita dago. Erdiguneko bizilagunek ez dute aparkatzeko lekurik. Alboko kaleetako plazak bizilagunek betetzen dituzte. Auzoetan bizi direnak arrazoiren batengatik (osain zentrora etortzeko, adibidez) erdigunera inguratuzeko autoa behar dutenean, zailtasunak dituzte aparkatzeko. Eta zeresanik ez bisitariak. San Bartolome auzoan badugu parking bat. Baina ez erdigunean eta auzoko eskaintza osatzeko orain dugu aukera.

Iaz ere, Europatik laguntza garrantzitsu bat jasotzeko modua dugu. Oso garrantzitsua, obra guztiz ordaintzeko adina. Baina guk gure parte jarri behar dugu horretarako: proiektua erredaktatzeko 60.000 euroko partida onartuz.

Garraio publikoa bultzatu behar dela? Bai, ados. Autobus zerbitzuak hobera egin du eta tren geltokirako lortu dugun hobekuntza ezagutzera eman genuen.

Erdiguneko oinezkoentzat izan behar direla? Bai, noski, horrela dugu. Baina gerturatzeko gutxienez erreztasuna emanda.

Ordiziako etorkizuna eraiki behar badugu, herri jasangarrigoa eta irisgarrigoa nahi badugu, aurre egin behar dugu eta aukera paregabea dugu hau.

Guzti honengatik, hurrengo proposatzen dugu:

1.- Dagokion diru partida sortzea, 60.000 € hain zuzen ere, aparkaleku proiektua egiteko, publikatuko den deialdian aurkeztu ahal izateko.


Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Esan du Ordizia oso herri bizia dela eta emateko asko daukala, baina zerbitzuak eskaini ahal izateko azpiegiturak behar dituela, horien artean aparkaleku bat.

Egitasmoa aurreko Osoko Bilkura batean gaitzetsi zen, baina berriz ere proposamena mahai gainean jartzen du proiektua egiteko diru-laguntza garrantzitsuak jasotzeko aukera dagoelako eta horrez gain, herritarren parte zabal batek eskatutako egitasmoa delako.



Ordiziako Udala

Gastu orokorreko 2017ko kontuaren diruzaintzako gerakinarekin finantzatuko litzateke.

Ezenarro jaunak

Esan du proiektu arduragabe bat dela proposamena landu gabe dagoelako. Orri bakar bat. Ez du azaltzen non egongo den, zertarako eta zein finantzaketarekin.

Uste du proposamena seriotasun handiagoarekin egin behar dela.

Beste behin ere galdetzen du ia zeintzuk diren hitzartutako diru-laguntzak, finantziazioa zein administrazio edo entitatearekin hitzartuko den, eta ustiatzeko modua zein izango den ere ez da azaltzen. Proposamenak esaten du aparkalekua egiteko finantzazio nahikoa egongo dela, baina ez du zehazten nork emango duen finantzazio hori.

Noiz edo noiz, udalerrian aparkatzeko premien inguruan dagoen azterketa bati egin zaio erreferentzia (Siadeco...etab.) eta ematen du azterketa horien ondorioak ez direla aintzat hartzen interesik ez dagoenean.

Esan du Ordizia, hedadurari dagokionez, txikia dela eta distantziak udalerrian laburrak direla. Hain zuzen ere, aparkalekuen beharrik ez duen zonaldeetako bat Barrenako zonaldea dela eta proposamenak parkina non egongo den esaten ez duen arren, horretaz hitz egin zen aurreko Osoko Bilkura batean Barrena parkean lurpeko aparkaleku bat egiteaz hitz egiten zen

Laburbilduz, uste dute azterketa sakonago bat egin behar dela.

Aurrekontuak onartzeko egindako parte-hartze prozesuan herritarrek aparkatzeko lekuen beharra aldarrikatu dutela, baina parte-hartze prozesuak ez direla halakoak izan esan da. Parte-hartze prozesurako Foru Aldundiak zehaztutako arauak eta irizpideak ez direla inondik inora bete. Mugikortasunaren galdeketa ipintzen du adibide bezala eta ez dio inolako bermerik ematen.

Oso simplea iruditzen zaio Ordiziak aparkalekuen beharra duela esatea. Aparkalekua birakaria izan daiteke eta dagoeneko dauden aparkatzeko zonaldeak, San Bartolomeko aparkalekua bezalakoak, goratu.

Ez du ulertzen zergatik ez den TAOaren aparkalekua arautzen.


Are gehiago, Mugikortasun Planaren kontra doa aparkalekua herri erdian ipintzea. Erdigunea hirigune historikoa eta bere inguruneak baino zerbait gehiago bezala ulertu behar da. Uste du egin behar dena, erdialdekoak ere badiren hainbat zonalde hobeto eta segurtasun handiagoarekin komunikatzea dela.

Ez ditu galdu nahi egon daitezkeen diru-laguntzak, baina agian diru hori beste hainbat inbertsionarako erabili beharko litzateke. Berriz esaten du proposamenaren inguruko puntu garrantzitsuak argitzea beharrezkoa dela.

Sukia andreak

Iritzi argi bat izateko datu eta informazio nahikorik ez dagoenez, gaia mahai gainean uztea eskatzen du.

Esan du goizean Kontu-hartzailearekin egon dela eta esan diola finantzazioaren zati bat Europako Funtseko ERAIN Programatik datorrela eta beste zati bat, 700.000 euro, Aldundiatik. Informazio gehiago behar dute.



Ordiziako Udala

Esan du goizean ERAIN programaren orrian sartu dela, orri horretan diru-laguntzen agindu arautzailea agertzen da. Aginduaren hainbat artikulua eta paragrafo hitzez hitz irakurtzen ditu.

I. gehigarrian ez da Ordizia agertzen. Iruzur zantzua antzematen du.

Agindua argitaratu berri da eta proposamena argitalpena baino egun bat lehenago erregistratu da. Prebarikazioaren antza hartzen dio. Kontuan hartu behar da funts publikoak direla.

Berriz eskatzen du gaia mahai gainean uztea.

Alkate jaunak

Erantzuten dio bazekiela deialdia aterako zela, urtero ateratzen dela.

Programaren objektuaren salbuespenean dago Ordiziaren eskaera, jendarteari zerbitzu bat eskaintzea kohesionatuz azokako mundua, landa-mundua. Saiatu behar gara funts publikoak Ordiziara ekartzen.

Ez du gaia baztertuko, baina prest dago behar den guztiaz hitz egiteko eta informatzeko.

Beste proiektu batzuetarako ere funts publikoak lortu dira, trena desbideratzeko partida, geltokiaren eta S.Bartolome auzoaren arteko lotura.

EH-BILDUri errespetua eskatzen dio; izan ere, talde horrek aurkeztu duen Oianguren inguruko proposamena antzeko moduan aurkeztu da, orri batean.

Esan du aukera bat dela eta proposamena aurkeztea ez dela arduragabekeria.

Bere momentuan Barrenan egitea proposatu zela, baina hori baloratu eta eztabaidatu behar dela.

Mugikortasunaren inguruko azterketa egin zuen enpresak, nahiz eta parte-hartzea eskasa izan zela onartu, parte-hartzaileen % 70ek aparkaleku bat eskatzen zutela esan zuen.

Esan du San Bartolomeri dagoeneko prestigioa eman zaiola aparkaleku baten eraketarekin, argiztapenaren hobekuntzarekin eta orain arriskua murrizteko eta zonaldea hobetzeko proiektu bat egingo dela.

Esan du Foru Aldundiak hondakinen mahaiaren parte-hartze prozesua 4.000 euroekin lagundu duela. Ez da egia parte-hartze prozesuetarako Aldundiak zehaztutako irizpideak bete ez direnik, errespetatu izan ez balituzte, ez liriteke diruz lagunduta egongo.


Ezenarro jaunak

Alkateari erantzuten dio bere taldeak Oianguren inguruan aurkeztutako mozioak eta mozio honek ez daukatela zer ikusirik bakoitzak behar dituen eginbeharrei dagokienez.

Aparkalekuko proiektua azokako mundua, landa-mundua babesteko bada, beste edozein leku baliagarria izan daiteke horretarako eta berriz ere esaten du datu gehiago izatea beharrezkoa dela. Pentsatzen jarraitzen du proposamenak, daukan tamainarekin, ez dela serioa.

Eguren jaunak

Esan du Osoko Bilkurako Gaietan Batzordean Alkateak esan zuela: "ez da bakarrik gure iritzia". Noren iritzia ere bada? Galdetu dio.



Ordiziako Udala

Alkate jaunak

Erantzuten dio gobernu taldearena ere badela.

